

## Motibazioa

*motivación / motivation / motivation*

1. Gizabanako nahiz talde bat hizkuntz eremuan era jakin batean jokatzera daraduten faktore kontziente edo erdi-kontzienteen multzoa adierazten du motibazioa hitzak: horrela, motibazioaz hitzegin daiteke, →hiztun batek, moda baten kontra edo modatzat hartzen duenaren kontra joateagatik, «egitura» hitza sistemaz baztertzen duenean.

2. Hitz baten eta berorren →esanahiaren (→edukinaren) artean edo hitz baten eta beste →zeinu baten artean hitzunak jartzen duen nahitaezko erlazioa ere motibazioa deitzen da. F. de →Saussure-k, →onomatopieien kasuan izan ezik, zeinua motibogabea zela sostengatu zuen. E. Benveniste-k gezurtatu egin zuen Saussure-ren tesia, →adierazlearen eta →adieraziaren arteko lotura nahitaezkoa dela eta ez →hautazkoa agertuz: hautazkoa, zeinuaren eta →erreferentearen arteko lotura da.

→Eratorpenean, beti dago motibaziorik: *hamargarren hamar*-ek motibatzen du.

## Mugagabea

Mugatu kontzeptuaren →antonimoa da (ikus hura ere); eta, hori bezala, ez litzateke erabili behar klase lexikal berezi bat aipatzeko (→artikulua, →izenordea); baina, bai hobeki, mintzairaren →funtzio erreferentzialari dagokion maila semantikoko →kategoria bat izendatzeko.

Artikulu mugagabeak, bere funtzio primarioan, kalkulu logikoetan existentzi eragileari dagokion →adiera izaten du. *Liburu bat erosi dut* perpausa, honela eman dezakegu parafrasi bidez: *nik erosi dudan liburu bat badago*. Artikulu mugatuaz bestalde, oraingoan, hemen ez da objektu edo pertsona konkreturik aipatzen; baina zerbait/norbaiten existentzia baiesten da soil-soilki, eta horri buruz adierazten da perpausuan agertzen dena egia dela.

Zerbait hizkuntzalarik mugagabe kontzeptuaren barruan egin ohi duen desberdinketak, [± espezifikoa], ez du funtsik. Ezaugarri horren bitartez azaldu nahi denak, esplikazio betegarriagoa du eragileen arteko nagusitasunezko harremanetan, hots, Jackendoff-ek, besteak beste, →erregela interpretatzaileak emanaz, azaleko egituretan bilatzen ditu.

Bestelako eragileen menpean dagoelarik (moduzkoak, esate baterako), edo →aditzen menpean, edo-ta izaera intentsionala duten beste →hitzen menpean, interpretazio espezifikoa ez den beste zerbait behar du artikulu mugagabeak. *Adarbakarrei buruzko liburu bat bilatzen ari da Juan* perpausak, ondoko bi interpretazio hauek onar ditzake:

a) Adarbakarrei buruzko liburu berezi bat bilatzen ari da J.

b) Adarbakarrei buruzko edozein liburu bilatzen ari da J.

Honi gagozkiolarik, hona hemen ondoko bi perpausen artean dagoen →adiera-desberdintasuna:

1. *Ikastetxe honetako pertsona guztiek atzerriko hizkuntza batez hitz egiten dute* (eta ez berbera, hortaz, nahitaez).

2. *Ikastetxe honetako pertsona guztiek hitz egiten duten hizkuntza atzerriar bat badago* (berbera, alegia).

Artikulu mugagabea eta «bat» →zenbakizkoa oso lotuta egon ohi dira; artikulu mugatua eta →erakusleak egoten ohi diren bezalatsu: euskaraz, alemanieraz, espainieraz eta beste zenbait hizkuntzatan, hitz berbera erabiltzen da. Honetxek azaltzen du, hain zuzen, alemanieraz esate baterako, artikulu mugagabeak →pluralik ez izatea. Plural hori badago, dena dela, euskaraz (batzuk), espainieraz (unos/unas), eta abar.

→Izenorde mugagabeak: zerbait, norbait, zenbait...

→Adberbio mugagabeak: noizpait, nonbait, halako batez...

J. L. Iturrioz  
Itz.: Txillardegia

## Mugarritzailea

*demarcativo / démarcatif / demarcating*

1. →Fonetikan, hasieran nahiz amaieran unitate esanahidun baten, →hitz zein →morfema baten, mugak ezartzen dituen elementu foniko bat da *seinale mugarriztailea*. Zenbait hizkuntzatan (txekieraz, adibidez) →azentuari dagokio →funtzio hori. →Ezaugarri →bereizle batzuk ere izan dezakete balio mugarriztailerik: grekoz, esate baterako, →hasperenketak. Balio bereizlerik gabeko ezaugarri foniko batzuk ere funtzio mugarriztailea dute batzutan: erusieraren kasuan, →bokalaren itxierak eta →bustidu-